2016

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEKO

JARDUERA MEMORIA



1.-SARRERA

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea (hemendik aurrera OEE) euskarazko aisialdiari eta kulturgintzari lotutako topagunea da; etorkizuneko Gasteizko Kafe Antzokia egitasmoaren zutabeetako bat. Euskararen erabilera sustatzea helburu duen gunea.

Euskara ardatz, euskarazko adierazpide artistiko ororen erakusleiho izateko bokazioarekin jaio zen 2014ko urrian. Euskaraz bizi eta euskarara hurbildu nahi duten herritar, euskal eragile, kulturgile eta kulturzaleen etxea izan nahi du. Erreferentziazko topagunea, sorgunea eta formaziorako gunea. Euskararentzako arnasgune berri bat da. Euskaratik abiatuta, gainontzeko hizkuntza eta kulturei ateak parez-pare zabaldu nahi dizkie.

2016an OEEk bi urte bete zituen. Aurreko urtearekin alderatuz, 2016aren hasieran aldaketa garrantzitsu bat eman zen: Lazarraga Kultur Elkartea (hemendik aurrera LKE), Gasteizko Kafe Antzokiaren proiektuaren sustatzailea, OEEren programazioa bere osotasunean hasi zen kudeatzen.

Memoria honek 2016. urtean OEEn izandako jarduerak azaltzea du helburu. Zehaztasunetan sartu baino lehenago, hau da urteak zenbakitan eman duena:



2.- PROGRAMAZIOA

2016. urteko OEEko programazioa jarraian zehaztutako bost helburu nagusi hauetan oinarritu da:

1.- Euskararen erabilera sustatu

2.- Euskarazko sorkuntza suspertu

3.- Euskararen normalizazioaren eragileen sarea trinkotu

4.- Kultura erreferente bilakatu

5.- Euskara eta hizkuntza-aniztasuna aztertu

Helburuak gauzatzeko honako estrategiak garatu dira:

1.- Euskararen erabilera sustatu:

1.1.-Erabilera espazio eta jarduerak sortu

1.2.- Ekintza parte-hartzaileak antolatu

1.3.- Hezkuntza komunitatearekin ekintzak antolatu

2.- Euskarazko sorkuntza suspertu:

2.1.- Belaunaldi ezberdinetako artisten arteko zubi lanak egin

2.2.- Sorkuntzarako tresnak eta baliabideak eskaini

3.- Euskararen normalizazioan aritzen diren eragileen sarea trinkotu:

3.1.- Euskal Herriko antzerako gune-eragileekin harremanak izan

3.2.- Gasteizko eragileei proposamenak egin

4.-Kultura erreferente bilakatu:

4.1.- Kalitatezko ikuskizunak eskaini

4.2.- Euskal Herrian euskaraz sortutako lanen erakuslehio izan

4.3.- Kultura eragileekin zubiak eraiki

5.- Euskara eta hizkuntza-aniztasuna aztertu:

5.1.- Arlo akademikoa jorratu

5.2.- Euskararen normalizazioan dabiltzan eragileen bilakaera eta erronkak ezagutu eta ezagutarazi

2016an 154 jarduera ezberdin antolatu ziren OEEn. Iazko datuekin alderatuz 42 jarduera gehiago izan dira, hots, % 37,5ko igoera izan da. Eranskinen atalean urteko jarduera guztien zerrenda ikus daiteke.

Kalitatezko programazio anitz eta askotariko baten aldeko apustua egin zen egitasmoa martxan jarri zenetik, eta azpian dagoen grafikoa horren isla da. OEEren irizpideen arabera bereizitako 17 jarduera mota burutu ziren: antzezlanak, aurkezpenak, bilera eta topaketak, bisita gidatuak, dantza saioak, elkarrizketa irekiak, erakusketak, hitzaldiak, ikastaro-tailerrak, ikus-entzunezko saioak, ikuskizun artistikoak, inaugurazioak, jolas saioak, kontzertuak, lehiaketak eta saio didaktikoak, besteak beste.

Ikus-entzunezkoak nagusitu, eta, zehazki, eskaintza osoaren % 20 izan ziren.



Hilabetero burututako ekimen kopuruari erreparatuz gero, udaberriko eta udazkeneko hilabeteak izan ziren jarduera gehien izan zuten hilabeteak.

HILABETEA	ZENBATEKOA
Urtarrila	16
Otsaila	10
Martxoa	12
Apirila	19
Maiatza	16
Ekaina	11
Uztaila	7
Abuztua	3
Iraila	9
Urria	18
Azaroa	17
Abendua	16
GUZTIRA	**154**

Eragileei dagokionez, hauek izan ziren urtean zehar Oihanederren ekimenen bat antolatu zutenak:

- AEFAT elkartea
- AEK
- ALEA
- ARGIA
- Arrosa Sarea
- Bay & by
- EMUN
- Badihardugu euskara elkartea
- Euskalkiak.eus
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
- Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua
- Gauekoak
- GEU
- Halabedi irratia
- Hamaika telebista
- Hegoalde euskaltegia
- Hor Dago Taberna
- Hunkitu Arte elkartea
- IKA
- Jare dantza taldea
- Jazzharrean
- Jimmy Jazz Aretoa
- Laboa Katedra UPV-EHU
- OEE / LKE
- Mondragon Lingua
- Parasite Kolektiboa
- Sarburu Kultur Elkartea
- Topagunea
- Udaberria euskaltegia
- UEU
- UPV/EHU
- Zizta euskara taldea

Guztira 32 eragile izan ziren. Hurrengo grafikoan ikusten den bezala, eragile ezberdinen arteko elkarlanaren ondorioz antolatutako jarduerak nagusi izan ziren programazioan (elkarlanaren nondik norakoak memoria honen 4. puntuan azalduko dira).



Jardueren guztien % 67 eragile bakar batek antolatutakoak izan ziren. Hauen artean OEE / LKE nabarmendu da urtean zehar 58 jarduera antolatuz, jarduera guztien ia % 38. Gainontzeko 29 jarduerak honako 5 eragileek antolatutakoak izan ziren: GEU, IKA, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua, Hala Bedi eta Udaberria euskaltegia.

Ondorengo grafikoan eragile bakar batek antolatutako jarduera horietan eragile bakoitzari dagokion ehunekoa adierazten da.



3.- ERABILTZAILEAK

2016an OEEn antolatu ziren ekitaldietara 11.486 pertsona etorri ziren; batez beste 74 ikusle jarduerako.

Hurrengo grafikoan ekitaldi mota bakoitzak izandako erabiltzaile-ikusle kopurua azaltzen da.



Ikus daitekeenez, 2015ean bezala, erakusketak izan ziren publiko gehien erakarri zuten jarduerak, ikusle kopuru guztiaren % 32 hartu zuten. Hauez gain, kontzertuak eta ikuskizun artistitikoak izan ziren ekimen jendetsuenak, % 15 eta % 12ko parte-hartzearekin, hurrenez hurren.

Erabiltzaileen generoari dagokionez, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala emakumezko gehiago hurbildu ziren antolatutako jardueretara. Emakumeak erabiltzaile guztien % 55 izan ziren.



*Lazarraga Kultur Elkarteak antolatu zituen jardueretan oinarrituta

Azkenik, adinari dagokionez, 35-60 urte bitarteko taldea izan zen nagusi: 2 erabiltzailetatik bat adin tarte horretakoa izan zen. 15 eta 34 urte bitarteko gazteek bete zuten bigarren adin tarte jendetsuena ia % 25rekin. Beste bi adin tarteak, 3-14 urte bitartekoena eta 60 urte baino gehiagokoena, nahiko pareko ibili ziren.



*Lazarraga Kultur Elkarteak antolatu zituen jardueretan oinarrituta

4.- ELKARLANA

Bi urte pasatxo dira OEE egitasmoa abian jarri zela, eta proiektu honen filosofiaren oinarrietako bat euskararen normalizazioan aritzen diren eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatzea da. Proiektua aurkeztu zenean horrela islatu zen:

"Lazarraga Kultur Elkartea osatzen dugunok, Gasteizko euskalgintza, kulturgintza eta hezkuntza arloetan izandako esperientzietatik iritsi gara Euskararen Etxearen eta Kafe Antzokiaren beharra plazaratzera. Hortik abiatuta, argi dugu Oihaneder Euskararen Etxearen eraginaren tamaina, besteak beste eta nagusiki, hiru arlo horietako dinamiketan integratzetik pasako dela: hau da, euskalgintza, kulturgintza eta hezkuntza munduetako eragileekin lan egitetik (…) Horiek guztiak bidaide nahi ditugu, eta gure ahaleginaren parte handi bat horretara bideratuko dugu".

Lehenengo urtean asmo hori jorratzen hasi zen eta bigarrenean bide horretan sakondu egin da: 2016. urtean OEEn antolatu ziren jardueren % 43 euskalgintzako, kulturgintzako eta hezkuntzako eragile ezberdinekin garatutako elkarlanaren emaitza izan ziren. Jarduera ezberdinen programazioan, komunikazioan eta produkzioan egindako elkarlanak izan ziren; mota ezberdinetako elkarlanak, alegia. Normala denez euskalgintzako taldeekin antolatutako jarduerak gehiago izan dira, baina beste bi taldeekin ere gero eta gehiago dira elkarrekin antolatutako ekitaldi eta saioak.

Iazko lan ildoei jarraiki, eragile ezberdin hauekin hasitako elkarlanean sakondu zen. Halaber, bidaide berriak ere izan ziren Euskararen Etxearen jardunean: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Mikel Laboa Katedra, Argia aldizkaria, edo gertuagora etorrita, Gasteizko *Zizta Euskara Taldea* kasu.

Azpimarratzekoa da Euskal Herri osotik jaso zirela elkarlanerako proposamenak. Zehazki, 2016an zehar 66 izan ziren OEEra iritsi diren proposamenak. Batzuetan

norbanakoak izan ziren beren jarduerak proposatu zituztenak, bestetan elkarte edo talde ezberdinak, eta noizean behin baita erakunde ofizialak ere.

Jarduera bakoitzean parte hartu zuten eragile-kopuruari dagokionez, parte–hartzea ezberdina izan zen ekintzaren arabera. Gehienak, % 80 baino gehiago, bi eragileren arteko elkarlanaren ondorio izan ziren; halere, ekintza batzuetan sei izatera ere iritsi ziren, *Euskara Pantaila Handian* ekimena kasu. Hurrengo taulak eragile nagusiek aipatu elkarlanean izandako parte-hartzea ehunekoetan jasotzen du. Elkarlanean antolatutako jardueren % 95ean OEE/ LKE azaltzen da, elkarlanak OEEren jardunean duen garrantziaren isla.

Eragile ezberdinen parte-hartzea elkarlanean antolatutako jardueretan



Esan daiteke, asko okertzeko beldurrik gabe, 2015ean hasitako elkarlan ildoari jarraipen eta zabalpen oparoa eman zitzaiola 2016an. Ugariak izan ziren LKEk beste eragile eta norbanako euskaltzaleei egin zizkien proposamenak eta are oparoagoa jaso ziren proposamenen zerrenda.

OEE Gasteizko eta Euskal Herriko eragile euskaltzaleentzat dagoneko bada erreferente eta bidelagun, dela aurkezpen bat antolatzeko dela erakusketa bat paratzeko; hala ikastaro bat abian jartzeko, nola egitasmo berri bat prestatzeko.

5.- KOMUNIKAZIOA

OEEn antolatutako programazioaren berri emateko eta proiektuaren beraren zabalpena egiteko, Komunikazio Plan Estrategikoan (2014-2017) zehaztutako irizpide batzuk praktikan jarri ziren, eta beste batzuk beharren arabera egokitu eta ezarri ziren 2016an zehar.

Euskarri eta kanal korporatiboak

2016ko ekainean webgunearen domeinua aldatu egin zen, helbidea laburtu eta errazte aldera: www.oihaneder.eus. Domeinu aldaketak Oihanederreko email helbideei ere eragin zion. 2016an, batez beste, webguneak 15.000 erabiltzaile izan zituen. 23.700 sesio egon ziren eta 55.500 orrialde bistaratu ziren.

Sare sozialei dagokienez, 2016ko abenduan Oihanederren Facebook orrialdeak 1.098 atsegite zituen eta Twitterren 1.321 jarraitzaile zeuden. Iazko datuekin alderatuz, Facebooken 386 (% 54ko igoera) atsegite gehiago lortu ziren eta Twiterren 565 (% 74ko igoera).

Bestalde 1.100 lagunek jaso zuten informazio orokorraren buletin elektronikoa euskaraz, eta 73k gazteleraz (hala eskatuta harpidetza egitean). Euskalgintzako 39 eragileri ere bidali zitzaien, baita Gasteizko euskaltegiei ere. Guztira 1.200 lagunetik gora jaso zuten Oihanederren buletina hamabostean behin. Iazko datuekin alderatuz, % 27ko igoera suposatzen du. Batez beste hartzaileen % 30k ireki zuen buletina.

Komunikabideak eta publizitatea

Astelehenero lehen orduan asteko agendaren berri ematen duen buletina bidali zen komunikabide guztietara. Informazio orokorraz gain, ekintza bakoitzean parte hartuko zuen artista, gonbidatu, hizlari edo antolatzaileekin harremanetan jartzeko

bidea eskaini zen. Hainbat ekintzen zabalpena sustatzeko prentsa oharrak bidali ziren, eta ekintza garrantzitsuenen kasuan prentsaurrekoak deitu. Prentsa deialdiak Vitoria-Gasteizko Udaleko komunikazio arduradunekin koordinazioan antolatu ziren, eta gonbidapenen zabalpena sustatze aldera, Udaleko eta Aldundiko protokolo sailekin harremana bideratu zen.

Honez gain, 2015ean abiatutako kolaborazioak mantendu egin ziren, baita berriak martxan jarri ere. Horiek horrela, Hala Bedi irratian hilero hilabeteko programazioaren berri emateko espazioa izan zuen OEEk *Suelta la Olla* eta *Hizpidea* irratsaioetan. Radio Vitorian ere hamabostean behin tartea izan zuen *El Mirador* izeneko goizeko magazinean. Honez gain, 2016an ALEA FM irratsaioan (ALEAk Radio Vitorian asteartero 17.00etatik 18:00etara egiten duen euskarazko saioa) kolaborazioa abiatu zen. Hilean behin *Euskararen oihana* izeneko atalean hilabeteko programazioaren berri eman zen, eta programazioari lotutako protagonista bat elkarrizketatu. Urtearen amaieran gainera, Info 7 irratiko *Gureaz blai* tartean kolaboratzeko proposamena jaso eta onartu zuen Oihanederrek, eta 2017ko hilabete guztien hasieran Oihanederen hileko programazioaren berri emateko audio pilulak egingo dira.

Publizitateari dagokionez, 2015ean ALEA, DNA eta EITB taldearekin lotutako hitzarmenak hobetu egin ziren iragarkiak, bannerrak eta irrati kuñak txertatzeko. 2015ean bezala, 2016an ere, Gasteizko Jaietako *Badatoz* aldizkari berezian abuztuaren 7an antolatutako ekintzaren iragarkia txertatu zen "*Oihaneder zein Zeledon, euskaraz beti on*" lemapean. Horrez gain, 2016ko martxotik aurrera Berrian ere publizitatea txertatzen hasi zen. Amaitzeko, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuaren bitartez, Argia astekariko hainbat iragarki-zutabetan OEEren inguruko informazioa ere eman zen.

Sustapena

Oihaneder Euskararen Etxea-Gasteizko Kafe Antzokia proiektuaren ezagutza eta egitasmoarekiko atxikimendua sustatze aldera, jauregian bertan zein jauregitik kanpo, ekintza desberdinak egin dira.

Barne sustapenari dagokionez, II. urtemuga jaia egin zen 2016ko urriaren erdialdean. Bestetik, urtean zehar 4 lehiaketa egin ziren. Gainera, *Gasteiztarrak Arraun The World* udako argazki-hizki lehiaketaren harira, Durango inguruko Garaiko landetxean 2 lagunentzako egonaldia zozkatu zen erakusketara eta bidaien aurkezpenetara hurbildutako pertsonen artean.

Honekin batera, askotariko bisita informalak jaso ditu Oihanederrek; *Gasteiztxo* programaren barruko gazteena urte osoan zehar; edo Deustuko Ibarrekolanda eta Botikazar Institutuetako ikasleena martxoan, besteak beste.

Azkenik, Oihanederren erabiltzaileen iritzia jasotzeko eta interakzioa bultzatzeko asmoz, 2016aren amaieran ebaluazio inkesta orokorra prestatu zen, eta buletinaren, sare sozialen eta WhatsApparen bitartez parte hartzeko gonbidapena egin zen. Ez ziren erantzun gehiegi jaso (43), baina erantzun zutenek ekarpen interesgarriak egin zituzten.

Kanpo sustapenari helduz, OEEko sustatzaile nagusia den Lazarraga Kultur Elkarteak (LKE) presentzia izan zuen Udaleko Euskararen Elkargunean, Gasteizko euskalgintzako eragileen foroan, *Oihandegia* taldean (Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak bultzatutako komunikazio dinamika baten ostean sortutakoa, euskalgintzako zenbait eragile WhatsApp, sare sozial eta email bidez kontaktuan mantentzen dituena), Arabako Kulturaren Mahaian…

Azkenik, Euskal Herriko esparru desberdinetan Oihanederren presentzia bermatzeko ahalegina egin zen. Horrela, Euskaldunon Topaguneak azaroaren 17an antolatutako *Mendebaldeko Mintegian* Oihanederren proiektua aurkeztu zen. Horrez gain, Gerediaga elkarteak Durangoko Azokan antolatutako *Gogoeta plaza* eztabaida gunean "*Kultura edukiontziak nola bete*" izeneko mahai-inguruan ere Oihanederren nondik-norakoak azaldu ziren abenduaren 6an.

6.- ONDORIOAK

OEEk bi urte bete ditu dagoeneko eta esan daiteke egonkortzen ari den proiektu bat dela. 2016a urte oparoa izan da ezbairik gabe. Alor ezberdinei erreparatuz gero, guztietan hobetu dela esan daiteke:

- Hasieratik landutako helburuen arteko oreka hobea izan da
- Abian jarritako jarduera ezberdinak ebaluatu eta bide berriak jorratu dira
- Elkarlana sendotu eta zabaldu egin da
- Proiektua ezagunagoa egin da, bai Gasteizen bai gainontzeko euskal herrietan
- Egitasmo berriak jarri dira martxan eta kulturgile ezberdinekin jarri gara harremanetan etorkizunean ere jarduerak garatzeko.

Dena ez da urre ordea, eta bada hobetzekorik. Horiek izango dira 2017an irabazi beharreko erronkak.

Jarraian ondorio nagusiak daude jasota:

Helburuen arteko oreka → 2016an bost helburu nagusien arteko oreka hobeto zaindu zen. Aurreko urtean ezarritako erronkei erantzuna eman zitzaien: elkarlana bultzatu eta sormena sustatu zen.

Jarduera kopuruaren gorakada → Jarduera kopuruak gorakada nabarmena izan zuen. Horrez gain, programazioa anitza eta askotarikoa izan zen.

Erreferentzialtasun handiagoa → Proiektuak erreferentzialtsuna irabazi zuen: Gasteizko eta Euskal Herriko artista, ikertzaile eta eragileen proposamen gehiago jaso ziren.

Publikoaren onespena → Jarduerek oro har publikoaren erantzun ona izan zuten. 2015arekin alderatuz, erabiltzaile gehiago egon ziren. Jarduera motari dagokionez, erabiltzaile-kopuruaren banaketa gorabeheratsua izan zen. Publikoaren profilari arreta jarriz, emakumeak eta 35-60 urte bitarteko erabiltzaileen taldea nagusi izan ziren.

Komunikazioaren bultzada → Oihaneder Euskararen Etxeko komunikazio kanalak gero eta jende gehiagorengana heldu ziren: sare sozialen, buletin elektronikoaren eta web orrialdearen erabiltzaile eta hartzaile kopuruak gora egin zuen. Marka korporatiboari dagokionez, Oihanederren irudi nagusia ezagunagoa egin zen. Komunikabide desberdinekin abiatutako kolaborazioek eta sustapen ekintzei jarritako arretak asko lagundu dute zeregin honetan.